



**2013KO UZTAILAREN 24KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko uztailaren hogeita lauan, arratsaldeko seirak eta hogeietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Haizea Mendia Insausti eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko uztailaren 5ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 39 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HIRU MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (23.659,87,-)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 13-11-02 zbk.dun esped.: zerbitzua murriztea astean 11 orduatik 5 ordura, 2013ko maiatzaren 20tik aurrera, bere osasun egoerak hobera egin duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.
- 13-11-02 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea astean 5 orduatik 15 ordutara, 2013ko uztailaren 10etik aurrera, bere osasun egoerak okerrera egin duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.
- 13-02-03 zbk.dun esped.: astelehenetik ostiralera egunean 3 ordu eta larunbatetan 2 orduko zerbitzua jartzea, 2013ko ekainaren 6tik aurrera. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da.

#### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 12-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimentu gastuetarako hilean 37€ko diru-laguntza ematea uztailetik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 200€ ematea uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakaoren %80a da.

- 13-01-010 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimentu gastuetarako hilean 46,25€ko diru-laguntza ematea uztailetik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250€ ematea uztailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakaoren %100a da.

#### IV.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara Batzordetik aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

##### Euskarazko eskoletara joategatik diru-laguntzak emateko baldintzen proposamena.-

Lazkaoko Udalak euskarazko eskoletara joategatik diru-laguntzak emateko bere aurrekontuan jarritako partidako dirua banatzeko eta partida agortu arte, honako erizpideak jarraituko dira:

- 1.- Langabeek eta ikasleek matrikula kostuaren %100 jasoko dute.
- 2.- Jubilatuek matrikula kostuaren %100 jasoko dute baldin eta 1.000€ edo pentsio baxu-agoa jasotzen badute.
- 3.- Dirurik soberan geratuko balitz lanean ari direnen artean banatuko da proportzionalki.
- 4.- Ikastaroa hasterako Lazkaon gutxienez urte bete edo gehiagoz errolatuta egon behar da.
- 5.- Eskoletara gutxienez %80ko asistentzia izan behar da.
- 6.- Ikastaroa euskaltegi homologatu batean egitea.
- 7.- Beste inolako erakundeetatik diru laguntzarik ez jasotzea.

##### 2013. urtean autoa eta motorra gidatzeko baimena ateratzeko azterketa teorikoa euskara hutsean gainditzeagatik diru-laguntzak emateko proposamena.-

2013. urtean autoa eta motorra gidatzeko baimena ateratzeko azterketa teorikoa euskara hutsean gainditzeagatik diru-laguntza izateko betebeharreko baldintzak hauek li-rateke:

- 1.- Ikaslea edo langabetua izatea.
- 2.- Lazkaon gutxienez urte betez errolatua egotea.
- 3.- Gida baimena Lazkaoko auto eskola batean atera izatea.

Diru-laguntza, udal aurrekontuan helburu honetarako jarritako partidako bi mila eta ehun euroko zenbatekoa (2.100€) agortu arte emango da.



V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpiak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop followed by a horizontal line and a vertical stroke.

